

Ebazpena: R 80/2023
Espedientea: 26/2017

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 28a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea nork duen eskumena 2016ko azaroan desegindako LTESLU zergapekoak 2012tik 2014ra bitartean egindako lan pertsonalaren gaineko atxikipenak ordainarazteko; zehazki, auzia telelan-araubideko langileen atxikipenen ingurukoa da. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 26/2017 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- LTESLU software garapeneko aholkularitza teknikoa eskaintzen zuen sozietate bat da, ia eskusiboki Bizkaiko bezeroak zituena.

Enpresak lantoki bakarra zuen Bizkaian, telelan-araubidean lan egiten zuten zenbait langile bazituen ere.

Lan-etekinen gaineko atxikipenen diru-sarrerak eskusiboki BFari sartu zizkion enpresak.

2.- ZAEAk, egoitza fiskala lurralde erkidean zuten telelan-araubideko langileei egindako atxikipenen inguruko egiaztapen-jarduketak hasi zituen; sozietatearen oinordeko izanik, GEA jaunarekin harremanetan jarraitu zuten aurrera jarduketok.

3.- BFAk, 2017ko ekainaren 27an, inhibititu zedila eskatu zion ZAEari, Bizkaiko lantokian adskribatutako langileen lan pertsonalaren gaineko atxikipenak ordainarazteko eskumenarekin lotuta.

4.- ZAEAk, 2017ko uztailaren 24an, eskumena berea zela berretsi zuen idatziz.

5.- BFAk, 2017ko abuztuaren 2an, eskumen-gatazka planteatu zuen; 26/2017 espediente-zenbakiarekin izapidetu da gatazka, prozedura arruntaren bidez, eta ZAEAk ez du inolako alegazio-idazkirik formulatu.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

12/2002 Legearen bidez onartutako Ekonomia Itunaren 66. artikulua ezartzen du Arbitraje Batzordearen eginkizunak honako hauek direla:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion

zehazteko, Sozietateen gaineko Zergaren edota Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Aplikatu beharreko arauak.

Ekonomia Itunaren 7. artikulua, eztabaida honi *ratione temporis* aplikagarri zaion 12/2002 Legearen jatorrizko idazketan, lan-etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreren ordainarazpena arautu zuen, honela:

«Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta EAEn egiten direnean, zerbitzuak EAEn egin direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilea adskribatuta dagoen lantokia lurralde horretan badago».

10/2017 Legearen bidez egindako aldaketaren ondoren, honela geratu da araututa:

«Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edo zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, edo zer tokitan egin diren zehazterik ez dagoenean, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokia kokatzen den lurraldean egin direla.

Telelanaren kasuan ere, eta lanak edo zerbitzuak atzerrian egiten direnean, edo ontzi handietan, itsasontzi txikietan, itsas artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokian egin direla».

3.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

3.1.- Arau-hutsune bat egoteari buruz.

Telelana urrutitik lan egiteko modalitate bat da; haren ezaugarria lan-harremanaren birtualizazioa da, eta horrek langilea libre uzten du leku eta denbora jakin bati lotzetik. Hala, ez du garrantzirik prestazioa materialki non ematen den. Leku hori, gainera, aldakorra izan daiteke, eta horrek zaildu egiten du modu frogagarrian zehaztea zerbitzua lurralde erkidean, foru-lurraldean edo atzerrian ematen den.

Telelanari buruzko 2002ko Europako Esparru Akordioak, 2009an berrikusiak, honela definitzen zuen telelana: informazioaren teknologiak erabiliz lana antolatzeke edo egiteko modu bat, kontratu edo lan-harreman baten esparruan, zeinean enpresaren lokaletan ere egin zitekeen lan bat horietatik kanpo egin ohi baita.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak bere 177. hitzarmenean eta 184. gomendioan arautu zuen etxetiko lana, modalitate hori langilearen etxean edo hark

aukeratutako beste lokal batean, enpresaren lan-lokaletatik kanpo, egiten denean gertatzen dela iritzita.

Barne-araudiari dagokionez, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 13. artikulua arautu zuen telelana, lan-jarduera enpresaren lantokian bertan egin ordez langilearen etxean edo berak askatasunez aukeratutako lekuan nagusiki egiten den lan gisa.

Azkenik, 28/2020 Errege Lege Dekretuak, Urrutiko Lanari buruzkoak, zeinetara jotzen baitu Langileen Estatutuko 13. artikulua, Telelana urrutiko lanaren modalitate gisa arautzen du (baliabide informatikoak, telematikoak eta telekomunikaziokoak nagusiki edo eskusiboki erabiltzean oinarritua), eta hau aitortzen du: *«Gaur egun, etxetiko lana baino gehiago, urrunetik egiten den lan malguaz hitz egin behar dugu, lana ingurune berrietan, zeinetan lantokian langilearen presentzia ez den beharrezko, egiteko aukera ematen duen lan malguaz, hain zuzen. Lan-harremanen birtualizazio horrek leku eta denbora jakin batetik bereizten edo deslokalizatzen du langilea».*

Horren arabera, argi dago Ekonomia Itunak lan pertsonalaren gaineko atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko erabilitako lotura-puntu nagusia (zerbitzuaren prestazio materialaren lekua) ez dela egokia hura onartu zenean ohikoa ez zen lan-modalitate baterako, hau da, telelanerako.

Azken batean, ZAEAk lortutako frogak eskuan ere, guztiz ezinezkoa da zalantzarik gabe esatea langileek zerbitzuak euren ohiko egoitzetan eman zituztenik.

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu arau-hutsune bat dagoela, eta, Auzitegi Gorenak 2019ko urriaren 4ko epaian (ECLI:ES:TS:2019:3144) emandako

irizpideari jarraituz, hutsune hori zuzenbidearen interpretatzaileak edo aplikatzaileak bete behar duela, Kode Zibilaren 3.1 eta 4.1 artikuluetan aurreikusitako arauen arabera betiere.

3.2.- Arau-hutsunearen integrazioari buruz.

Aipatutako epaian Auzitegi Gorenak ezarritako ildo beretik, 10/2017 Legearen bidez egindako Ekonomia Itunaren 7. artikulua erreformak interpretazio-parametro egokia ematen du aurreko ekitaldietarako, haren ondorioak etorkizunari aplikatzeaz gainera.

Hala, langilea adskribatuta dagoen lantokiaren irizpidea da behar den objektibotasunarekin edo segurtasunarekin ondoen lotzen dena (gogoratu behar da Auzitegi Gorenak nabarmendutakoa: «*Irizpide hermeneutiko oso ziurra da legegilearen jarrera, manua aldatu baitu bertan hutsunea aurkitu duenean*»), eta enplegatzaileak horren beharra du atxikipena egiteko eta atxikitakoa ordainarazpen-eskumena duen administrazioan sartzeko obligazioa betetzerakoan. Lotura-puntua objektibatzeke irizpide horrek segurtasun juridiko hobia ematen du kasu guztietan; izan ere, kasu askotan ezinezkoa izango da lana benetan non egiten den frogatzea, ez baita nahitaez langilearen etxean egingo.

3.3.- Lantokiari buruz.

Legeria soziala eta legeria laborala ez datoz bat langilearen adskripzio-zentroa eta langileak zerbitzuak ematen dituen edo lan egiten duen eremu geografikoa zehazteko orduan.

Ohikoa da enpresek, beren jardueraren izaera kontuan hartuta, bulego edo sukurtsalik ez izatea beren jardunerako erabiltzen duten leku bakoitzean, nahiz eta eremu geografiko horretan zerbitzuak ematen dituzten langileak izan, baita

esklusibotasun-araubidean ere, eta/edo beste espazio batzuetan ez lehiatzeko betebeharrarekin.

Kasu horietan desadostasuna egotea baimentzen da langileak zerbitzuak ematen dituen eremu geografikoaren eta adskribatuta dagoen lantokiaren kokapen geografikoaren artean, eta horrek garrantzia izango du eztabaida judizialak, Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua eta abar ebazterakoan.

Horrenbestez, aipatu desadostasunaren ondorioz, posible da lurralde erkidean zerbitzuak emanda ere, langile bat foru-lurraldeko lantoki bati adskribatuta egotea, edo alderantziz.

Langileen Estatutuaren 40. artikulua ondu ondorioetarako, langilearen lantokia izango litzateke bere zerbitzuak eskusibotasunez ematen dituen tokia, eta ez atxikipen-lantokia. Horrela, zerbitzuak emateko eremu geografikoa aldatu gabe adskripzio-zentroa aldatzeak ez lioke eskubiderik emango kontratua bidegabeko kaleratze baten berezko baldintzekin deuseztatzeko.

Hala ere, lan-prestazioen gaineko atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko, legegileak langilea «*adskribatuta dagoen lantokia*» aukeratu du; horrek eskatzen du enplegataileak langilea «*adskribatzeko*» borondatea izatea, eta nahitaez eramaten gaitu lan-kontratuan kontsignatu den eta Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua zehaztuko duen zentrorra.

Nahiz eta 28/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikulua arabera langileak urrutiko lana egiteko aukeratutako lekua identifikatu behar duen, adskripzio-lantokiaren irizpidea aukeratzen da oraindik lan-prestazioaren gaineko atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- Ebaztea Bizkaiko Foru Aldundiari dagokiola dagoeneko deseginda dagoen LTESLU sozietateak egoitza fiskala lurralde erkidean zuten telelan-araubideko zenbait langileri 2012tik 2014ra bitartean egindako lan pertsonalaren gaineko atxikipenak ordainarazteko eskumena.

2.- Jakinaraztea honako erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta GEA jaunari.